

HAZIAK ASTIALDIRA

Hezkidetzak astialdian
hartzen duen tokiaz
hausnartzen



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

www.egk.eus

HAZIAK ASTIALDIRA

Hezikidetzak astialdian hartzen duen tokiaz hausnartzen

Idazketa eta edizioa: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua



Diseinua eta maketazioa: **Erreka Multimedia S. Coop.**

Laguntzaileak:





AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. OINARRI TEORIKOAK	6
2.1. SEXU-GENERO SISTEMA	6
2.2. GENERO-SISTEMA HEZKUNTZAN	8
2.2.1. Hezkuntza-prozesua eta generoaren eraikuntza	9
3. HEZKIDETZA	11
3.1. Hezkidetzaz astialdian	14
4. METODOLOGIA	17
4.1. Galdetegia	17
4.2. Lan saioak	17
5. ANALISIA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA	19
5.1. HEZKIDETZA, ASTIALDI TALDEEN ULERKERATIK	19
5.2. EGUNEROKO LANEAN ETA BIZIPENETAN ARRETA JARRIZ	25
5.3. ESPAZIOAK: banaketa eta erabilera	28
5.4. MATERIALA	29
6. ETORKIZUNERAKOKO PROPOSAMENAK	31
6.1. Astialdi talde eta elkarteei zuzenduta	31
6.2. Administrazioei zuzenduta	35
7. ITXIERA	37
8. BIBLIOGRAFIA	39





1. SARRERA

Berdintasuna lortuta dagoenaren ustearekin bizi gara. Izan ere, azken urteotan, aurrerapauso asko eman dira. Hala ere, asko dago egiteko; bai gizartean orokorrean baita gazterian partikularrean ere. Eta hezkuntzan, etengabe aldatzen ari den eremua izanik, berdintasunerako bidean urratsak ematea ezinbestekoa da.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik (EGK) hezkidetzari landu nahi izan da, EAEko gazteriak honekiko dituen ezagutzak, esperientziak eta proposamenak zeintzuk diren jakiteko. Horretarako, 2018an *Berdin-Hezi: hezkidetzarako lehen urratsak* izeneko dokumentua sortu zen, hezkuntza formalean ematen den hezkidetzari buruz gazteek dituzten iritzi eta ezagutzak lantzeko.

2019an urrats bat eman eta hezkidetzari astialdian nola ematen den jakin nahi izan da. Horretarako, lehenik eta behin, astialdian murgilduta dauden gazteei zuzenduriko galdetegi bat egin da eta, ondoren, astialdiko talde ezberdinekin bildu da gai honetan sakontzeko asmoz. Bertan, zenbait hausnarketa, iritzi eta jada praktikan ematen diren errealitate edo ekintza jasotzeko, honek etorkizunerako proposamen bidea ireki duelarik. Saio hauetan gainera,

egoera errealei erreparatuz eta praktikari erreferentzia eginez aterata dira ondorioak. Hausnarketa taldeen eguneroko premietara edo jardunera eramanez eta etorkizunerako hobekuntza proposamenak maila praktikoan landu nahi izan dira.

Dokumentuan zehar, lehenik eta behin, hezkidetzarekin loturiko kontzeptu teorikoak azaldu dira, teorikoki gaian kokatzeko. Ondoren, egindako galdetegi eta eztabaida saioetako informazioa bildu eta analisi bat egin da.

Aurreko txostenean esan bezala, hemen bildutakoa EAEko astialdi munduaren errealitatearen lagin bat baino ez da. Izan ere, hezkidetzak ibilbide murriztu du oraindik gure gizartean eta datozen orrialdeetan ongi ikusiko denez, asko dago egiteko astialdian ere bide horretatik. Aldi berean, lehen urrats hauek ezinbestekoak dira ondorengoak etortzeko, eta astialdian ere, hezkidetzaren haziak landatzen joatea beharrezkoa da, gutxinaka-gutxinaka eta elkarrekin honek ondoren loratu dezan eta lanketak etorkizunerako hezitzaile, gazte, boluntario edo mundu honetan murgilduta dagoen ororen bizitza zeharkatu dezan hezkidetzak.

2. OINARRI TEORIKOAK

2.1. SEXU-GENERO SISTEMA

Lehenik eta behin, sexu-genero sistemak hezkuntzan duen lekua zein den aztertzeko, garrantzitsutzat jo da sexua eta generoa zer diren definitzea. Urteetan zehar, definizio asko egin izan dira gai honen baitako kontzeptu desberdinen inguruan eta, askotariko lanketak irakurri ondoren, sexua eta generoaren definizioa zabala eta aldakorra da. Sexua eta generoa bizitza osoan zehar ematen den garapen prozesu bat ere bada, esan bezala une oro aldatzen doala eta esku-hartzeak ezinbesteko papera jokatzen duela presente izan behar da zentzu honetan.

Sexua

Fresnedo eta Gabilondok (2018) *Betaurreko moreak gidan* egindako definizioa kontuan izanik, sexua pertsona bakoitzak jaiotzean duen genitalen arabera egiten den ohiko eta berezko bereizketa da, ‘emakumea’ eta ‘gizonezkoa’ banaketa aurkitzen delarik honen baitan. Hala, eta gizartean gailentzen den normari jarraiki, aluarekin jaiotzen diren pertsonak emakumezkoak bezala kategorizatuko dira eta, aldiz, zakilarekin jaiotzen direnak gizonezko gisa. Hori izan da tradizionalki eman izan zaion adiera sexuari.

Baina definizio klasikoetatik haratago, egungo esperientzia eta errealitateek erakusten dute eredu anitzak daudela sexualitatea eta generoa bizitzeko. ALBOAN (2020) erakundearen arabera, honakoa da sexuaren aspektua aztertzeko definitu edo kontuan hartu behar dena: sexua determinazio biologiko baten oinarritzen da eta desberdintasun fisiko batzuk ezartzen ditu, baina binarismotik kanpo kokatzen diren teoria alternatiboak kontuan hartuz, hau aldakorra izan daiteke, moldagarria. Sistema binariotik ateratzean, hainbat identitate edo sexua bizitzeko modu aurkitu daitezke, pertsona adina aukera desberdin hain zuzen ere, eta zentzu horretan eremu honetan ere aniztasuna aintzat hartzea beharrezkoa da.

Naizen (2020) elkartearen arabera, sexua honela definituko litzateke, prozesu oso baten jarrita ikusmira: “Gizon edo emakume izateari egiten dio erreferentzia, edo hobeto esanda gizon edo emakume egiteari (sexuazio-prozesua), bizitza osoan zehar, denok bi sexuetaiko ezaugarriekin”. Definizio honetan, sexuazio prozesua azaltzen da, zeinak sexu-desberdintze prozesua eta honen baitako ezaugarriak definitu nahi dituen. Ideia honek, prozesu baten bidez gizon edo emakume egiten dela azpimarratzen du, maskulino edo femeninoan, guztiok bi noranzko hauen baitan sexuatzeko garelarik. Era berean, definizio honek

ezaugarrietan neurri eta intentsitate maila desberdinak egon daitezkeela kontuan izan behar dela ere barnebiltzen du.

Naizenek (2020) definizioari egindako ekarpenaren arabera, hitz hau, sarritan organo genitalak izendatzeko ere erabiltzen da, edo baita hauekin egindakoa ere, baina erabilera horrek nahasten ditu dena, daukana eta egiten duena.

Toregrosark eta Tatok (2020) *Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskola Komunitatearentzat* txostenean sexua honela definitzen dute: “norberak duen edo norberak sentitzen duen sexu identitatea”. Kasu honetan, beraz, sexua ez da genitalei lotutako definizio gisa ageri.

Toregrosark eta Tatok (2020), beste nolabaiteko definizioa egiten dute, Efigenio Amezua sexologoaren teorian oinarrituz. Honen arabera, sexua norberak duen edo norberak sentitzen duen sexu identitatea da (ez genitalei lotutako definizio gisa) eta sexualitatea sexudun izatearen nolakotasuna da, bakoitzak neska edo mutil izateaz duen bizipena. Hala, sexu heziketa ‘osasuntsu’ baterako klabeetara horrela hurbildu behar dela esaten da: “Etengabe ari gara hezten, etengabe ari gara sexu heziketa lantzen. Sexualitatea etengabe

garatzen ari den zerbait da eta sexualitate guztiak ezberdinak dira”.

Zentzu honetan, txostenean biltzen den ideia hezteko unean sexualitateez (pluralean) hitz egin beharko litzatekeela da, intersexualitatearen eta aniztasunaren ideiak oinarri hartuta. Pertsona guztiak eta hauen sexua zein sexualitatea bizitzeko modu desberdinak aintzat hartuko dituen hezkuntza eta sexu irakaskuntza eredu bat bultzatuz.

Generoa

Generoa bi sexu hauei atxikitzen zaizkien rol eta estereotipo multzoa da, eta tradizionalki emandako definizio horri jarraiki, femeninoa eta maskulinoa bereizi daitezke honen baitan. Gainera, kontuan izan behar da ezaugarri berezitez (jarrera, portaera, atributu edo jardueri lotuak batik bat) ari garela hitz egiten, gizarteko jokabide eta jarreretatik esleituak izan direnak eta sexu batekoa edo bestekoa izateagatik sarritan inposatuak direnak (Emakunde, 1997).

Femeninoak gizartean emakumezkoei egokitzen zaienarekin edo hauekin lotu izan denarekin du harremana (goxoa, sentibera, adeitsua...); maskulinoak berriz, gizonezkoei lotzen zaienarekin du lotura (ausarta izatea, indartsua, azkarra...).

Baina kontuan izan behar da jarrera edo jokabide batzuk maizago emateak kasu batean edo bestean ez duela beti horrela denik esan nahi. Gure baitan sortu, forma emanez eta ezarriz joan den imajinario honek nolakoak izan behar dugun ezartzen du. Honek nolabaiteko egoera arautuak ezartzen ditu, eraikitako definizioetan kokatuz genero bat edo beste.

Fresnedo eta Gabilondok (2018) aipatzen duten bezala, sexua (biologikoa) generoarekin (kulturala, gizarteakeraikia) lotzen denean, modu automatikoan eta ohiko eskemari jarraituz ematen da genero-sistema, gizonak maskulinoak eta emakumeak femeninoak direla multzokatuz eta aukera hau zuzenean orokortuz. Hau azken milurtekoan jendartean eman den gizarte antolakuntza izanik, kategoria sinboliko hauek mendekotasunak eta inposizioak dakartzatela: hierarkizazioak nagusi, ezberdinkerietan zein boterekerian oinarritutako harremanak sortuz eta aberastasun-banaketak emanez honen baitan.

2.2. GENERO-SISTEMA HEZKUNTZAN

Hezkuntza norbere baitan (maila indibidualean) eta maila kolektiboan ematen den prozesua da. Hezkuntzak bizitzako esparru desberdinak zeharkatzen ditu eta mikroenetik makroenera doa.

Etengabeko aldaketa prozesuan kokatu dezakegu hezkuntza, eguneratze eta egokitze ariketa konstantea baita eta, horregatik, etengabeko berrikuspena behar du. Testuinguruak eta beste hainbat faktorek hezkuntza baldintzatzen dute eta askotarikoak dira hezkuntza-prozesuetan garrantzia hartzen duten alderdiak.

Jaiotzetik hezten da, bizitza osoko garapen prozesuan pilareetako bat da hezkuntza, egunerokoan gure bizitzetan eragina duen horren erantzun zentrala hartzen duena eta bizitza osoan zehar zeharka eragiten duena, etengabe zeharkatzen gaituena.

Kalitatezko esku-hartze bat aurrera eramateko, beharrezkoa da aniztasuna aintzat hartu eta sexua eta generoa bizitzeko dauden aukera guztiak kontuan hartzea, betiere ikuspegi barne-hartzaile batetik.

Gainera, astialdi hezkuntzaren kasuan ere ezinbestekoa da etengabeko birpentsatze bat ematea bai lantzen diren edukietan eta baita erabiltzen diren moduetan ere. Antolaketa, jarrerak, material pedagogikoak, espazioen kudeaketa, harremanak, lantzen diren eduki guztiak... hauek guztiak hezkuntzako berrikuspen kritiko baten baitan kokatu behar dira eta baita identifikazio hori

hezkidetzatik eman. Izan ere, eredia gizartean inguruan oso presente dauden sexismo eta estereotipoen bidetik dator eta aldaketak ematen joateak etengabeko eguneratzea ekarriko du.

2.2.1. Hezkuntza-prozesua eta generoaren eraikuntza

Hezkuntza prozesu guztietan gizartearen etengabeko erreproduzio bat eramaten da aurrera: kulturarena, balioena, ideiena, rolena, prozesuak ulertzeko ikuskerarena...

Zentzu honetan, hezkuntza-prozesua eta generoaren eraikuntza elkar loturik daude eta joeren araberakoak izango dira honen lanketak.

Historian zehar aldaketak oinarri izan dituen ikaskuntza eta hazte prozesua

EGK-k (2016) [Sexualitatearen koloreak](#) gidan aipatu moduan, oraindik ere hainbat egoeratan neska-mutil banaketa dikotomikoa burutzen da hezkuntza testuinguru desberdinetan. Segregazio honek ondorio anitz ekar ditzake, hala nola: hezkuntza esparruan, identitatearen gaineko lanketarik ez dagoenean, arazoak ager daitezke hartzaileekin bere identitatearen eta esleitutakoaren artean desberdintasuna dagoenean; trans* pertsona

batzuen kasuan esaterako. Batzuetan, segregazioa “ohitura mantentzearen” antzeko argudioen bitartez justifikatzen da, adibidez, dantza taldeak antolatzeko, kirol desberdinak praktikatzeko... Aipatutako eraikuntzek identitate egitura dikotomikoak indartzen dituzte.

Pertsona bat jaiotzen den unetik jasotzen dituen mezuak barneratuz identitatea eta izaera eraikitzen hasten da eta modu honetan sexua eta generoa definitzen eta jarrerak finkatzen ditu. Bide honetan, gaitasunak garatzen dira eta honekin batera, emozioak nola kudeatu behar diren ikasten da. Sozializazio prozesua litzateke hau, inguruko jarrerak imitatuz eta espazio ezberdinetako mezuak barneratuz egiten dena.

Ikastetxeek estereotipo maskulinoak eta femeninoak baztertze bidea emango duten hezkuntza-eredu integralak eskaini behar dituzte, ikasle bakoitzak, genero-nortasuna alde batera utzita, bere nortasuna eraiki dezan eta gaitasun guztiak garatzea lor dezan, horretarako familiaren lankidetzaren beharrezkoa izango delarik (Emakunde, 1997). Hau, bestelako hezkuntza ez-formaleko taldeetan ere hala eman behar da, astialdia hezkuntza eredu integral batetik lantzeko.

Espazioak eta agenteak

Espazio ezberdinei buruz hitz egiten denean, ikastetxetik kanpo ematen diren beste ekintzez edota etxeko espazioari buruz ere hitz egiten ari da. Alde batetik, familia eremuari buruz; eta, bestetik, astialdiko ekintzei eta hauek garatzeko aurrera eraman beharreko faktore guztiei buruz. Hauei guztiei sozializazio agenteak deitzen zaie. Izan ere, ikastean, jolastean, telebista ikustean, ariketa fisikoa egitean edota bestelako zenbait ekintza aurrera eramatean ere ikasten da, hezkuntzan burutzen diren ekintzetako asko barneratuta daudelarik.

Emakunderen (1997; 36) arabera honakoa da hau lantzeko esparruen banaketa: “Ikastetxearen hezkuntza-ereduan, esparru publikoa eta pribatua-etxekoa hartuko dira giza hazkunderako oinarri-oinarrizko espaziotzat. Espazio horietan, gainera, oinarritzko hainbat gaitasunen garapena sustatuko da, balore jakin batzuen arabera sustatu ere, eta balore eta gaitasun horien ondoriozko jarrera koherenteak hartzearen alde ere lan egingo da. Horiek eskuratuz gero, ikasle bakoitzak autonomia, independentzia eta nortasuna eskuratuko ditu bi esparruetan”.



Iturria: Emakunde (1997)

EGKn, hezkuntza bi norabidetan lantzen da: hezkuntza formala eta ez formala. Hari honetatik, eta aurretik aipatutako guztia aintzat hartuz, astialdiko talde, antolaketa eredu eta ekintzetan ere faktore horiek (agenteak, espazioak, gaitasunak, baloreak...) berebiziko garrantzia hartuko dute. Beraz, aipatutako Emakunderen definizio hori astialdiko ekintzetara ere helarazi daiteke, izan ere, zerrenda horretarik kontuan izan beharreko faktoreak berdinak dira •

3. HEZKIDETZA

3.1. GENERO PERSPEKTIBA, HEZKUNTZAN ERE

Hezkidetzaren pertsonen garapen integrala lortu ahal izateko behar-beharrezko eremutat definitzen du EGK-k. Kontuan izan behar da edozein hezkuntza prozesuk, izan maila formalean edo ez formalean, ondorio eta eragin bat duela pertsonengan eta hauen garapenean, etorkizuneko izate eta jokabidean ekarpenak egiten baititu.

ALBOANek egiten duen definizioan, horrela azaltzen da hezkidetzaren terminoa zehazki:

“Hezkidetzaren sexu orientazio eta genero-identitateen arteko berdintasunean eta inklusioan hezteko estrategia pedagogikoa da, zeinetan pertsonen aniztasuna onartzen eta balioesten den, eta aniztasun horrek ez duen desberdinkeria, desparekotasuneko eta diskriminazioko jardunbiderik ekartzen. Hezkuntza-jardunbide inklusiboak dira eta pertsona guztien hezkuntza dute helburu, alderdi guztietan.

Beraz, hezkidetzaren helburua eskolan dauden diskriminazio-mekanismo guztiak desagerraraztea da, hala egitura formalari buruzkoak nola hezkuntzako ideologiarekin eta jardunbidearekin lotutakoak. Eskola

hezkidetzarekin azken xedea beren errealitateaz arduratzeko gai diren herritarrak sortzea da, hala ekoizpenari nola gizarteari eta familiari dagokienez. Pertsona horiek gai izango dira beren bizi-proiektua askatasunez aukeratzeko eta beren buruak, beren kideak eta ingurune naturala zaintzeko”.

Honakoa astialdi hezkuntzara edo hezkuntza ez formalera egokitzea da egin nahi den proposamena txosten honetan.

Hezkidetzaren, alderdi desberdinak hartuko dira aintzat: pedagogikoa, kulturala, harremanak...

Hezkidetzaren lantzerako orduan, edozein eremutan dela ere, garrantzitsua da honako ideia hau argi izatea: “Pertsona gisa garapen integrala lortzeko, berdin dio gizonezkoa edo emakumezkoa izatea, ez baitago garapen hori baldintzatuko duen inolako biologi determinatzaile” (Emakunde, 1997). Beraz, ideia honek argi uzten digu hezkidetzaren dualismo tradizioetik at jardun nahi duela, eta horretarako beharrezkoak diren mekanismo, prozesu eta tresnak jarri nahi dituela eredu hau garatzerako orduan.

“Pertsona, hezkuntzaren ikuspuntutik, entitate globaltzat hartu behar da, honakoak bilatzen

dituela: adimenaren eta gorputzaren arteko oreka, esparru afektiboaren eta kognitiboaren arteko harreman estua eta, azkenik, esparru pribatua nahiz publikoan autonomia eta independentzia izatea. Hezkidetza-ereduaren eraikuntzak eta definizioak pertsonaren garapen integralaren kontzeptuzko edukia bilatzea dute helburu, eta ikuspuntu afektibotik, kognitibotik eta jarrerazkotik abiatuko dira zeregin horretan” (Emakunde; 32).

Hezkidetza, norbanakoaren eskubideen eta beharren lanketa aintzat hartuko duen hezkuntza erdua da, ohikotzat hartua dena gainditu, hobetu eta justuagoa bilakatuko duena. Hezkidetzaren lanketa bere baitan eraldaketa prozesu bat da, etengabeko egokitzapen ariketa bat. Begirada feminista duen hezkuntza da hezkidetza, bai edukari dagokionean, bai hizkuntzari erreparatu eta baita espazioen kudeaketa kontuan izanik ere. Pertsonen beharrak berdintasunean kokatu eta aintzat hartuz hezteko helburu du hezkidetzak.

Zentzu honetan, “pertsonari buruzko ikuskera globala izango duen, pertsonen garapen integrala sustatuko duen eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko hierarkizazio soziokulturala gaindituko duen” hezkuntza-erdua lortzea izango da bere xede nagusia (Emakunde, 1997).

Gainera, hezkidetza lantzean, adibidez, emozioen esparrua ere lantzen da, hau hezkuntza eredu horren ezaugarrietako bat izanik. Hain zuzen ere, emozionaltasuna, afektibitatea, autoestimua edo sexu heziketa bere horretan hezkidetzaren baitan sartzen dira. Ikasketa prozesu honetan, niaren inguruko lanketa ere egiten da, horretarako nortasuna, norbanakoaren independentzia, autonomia eta ezagutza zutabetzat hartuz.

Hezkidetza definitu nahian, beste molde eta adiera batzuk ere erabili izan dira. *“Generoa Aisialdian”* (Arabako Foru Aldundia, 2004) adibidez, “Baterako hezkuntza” erabiltzen du. Hau sexuen arteko berdintasunetik eta bazterketa ezetik abiatzen den hezkuntza metodoa da. Hala, nesken eta mutilen artean batera hezteko ezin da mendekotasun harremanik sortu, nahiz eta bien arteko ezberdintasuna kontuan izatea azpimarratzen den. Beraz, mendekotasunean jartzen da gehiago kasu honetan begirada. Baterako hezkuntzan emakumeek historian zehar izan dituzten lorpenak eta egin dituzten ekarpenak txertatu eta ikusarazi nahi dira.

Zentzu honetan, beraz, eta definizio hauek guztiak aintzat harturik, hezkuntzan genero-perspektiba txertatzea ezinbesteko kontu bat da. Diseinatzen den lanketa guztian, aurretiaz aipatutako genero-sistema horrek izan ditzakeen ondorioak

aurreikusteko gaitasuna hartzen du bere baitan hezkidetzak. Ondoren Arabako Foru Aldundiak (2004) *Generoa Aisialdian* gidan planteatzen duen

koadroa ageri da, astialdian genero-perspektiba txertatzeak eta ez txertatzeak dakartzan ondorioak alderatzen direlarik.

Zer dakar genero-ikuspegia ez txertatzeak?	Zer dakar genero-ikuspegia txertatzeak?
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza erreproduzitzea edota normaltzea.	Emakumeen eta gizonen arteko arraila murrizteko estrategiak sortzea eta demokrazia zabaltzea.
Programen eta politiken inpaktua (soziala, kulturala, politikoa, ekonomikoa, etab.) murriztea.	Programen eta politiken inpaktua (soziala, kulturala, politikoa, ekonomikoa...) areagotzea.
Emakumeak, beraien beharrianak eta interesak baztertzea, gizonekin berdintasunean daudela ziurtzat ematen delako.	Gizartean emakumeek eta gizonek rol ezberdinak dituztela agerian uztea.
	Emakumeek eremu guztietan parte hartze handiagoa izateko eta parte hartze horren oztopoak murrizteko edota desagerrarazteko neurriak hartzea.
	Emakumeak baztertzeo praktikak agerian uztea, desagerrarazteko helburuz.
	Gizarte errealitatera hobeto hurbiltzea eta, horrenbestez, emaitza hobeak lortzea.

Iturria: Arabako Foru Aldundia (2004).

EGKn, *BerdinHezi: hezkidetzarako lehen urratsak (2018)* txostenean ikertu zen EAEko gazterien gehiengoak hezkidetzara zer den badakiela ondorioztatu zen. Hala ere, gainerakoek, eta beraz, ehuneko altu batek (%31,3) ez dute zer den ezagutzen. Hezkidetzara definitzeko eskatzerakoan, ondorengo erantzun hauek bildu ziren besteak beste:

“Gizarte heteropatriarkalean ematen den hezkuntza sexista deseraikitzea eta pertsona guztientzako aukera berdintasuna eskaintzea helburu duen hezkuntza praktika”.

“Trebetasunak lantzen dituzten hezkuntza programak, genero-bereizketarik gabe, neska-mutilek gizartean aukera berdina izan ditzaten”.

“Nesken eta mutilen arteko berdintasuna oinarritzat harturik gazteak hezteko, gizartean ezarritik dauden gizonetzko eta emakumezkoen rola albo batera utzi”.

Bestetik, *Hezkidetzarako II. Planak* (Hezkuntza saila, 2019) hezkidetzarako zutabe hauek finkatzen ditu:

- Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.

- Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
- Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.
- Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
- Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak.
- Berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.

3.2. HEZKIDETZA ASTIALDIAN

Hezkidetzara pertsonen garapen integrala lortzeko beharrezko prozesu gisa ulertuz gero, hezkuntza-eredu integral bat garatu behar da, baita hezkuntza ez formalean ere.

Haur edo gazte bakoitzak genero-nortasuna nahi bezala garatzea ahalbidetuko duen astialdiko hezkuntza-eredu batez hitz egitea litzateke kasu honetan, non estereotipo maskulinoak eta femeninoak baztertzeko apustua egingo den eta, beraz, hortik bideratuko den astialdi munduko profesionalen lana.

Zentzu honetan, astialdian egiten den esku-hartzeak begirada kritiko bat izan behar du ezinbestean, izan ere, hau ez dago sexu-genero sistematik kanpo eta, hori dela-eta, jarrera matxista eta androzentrikoak erreproduzitzen dira, botere harremanak sortuz esaterako.

Historian zehar emakumezkoek jasan behar izan duten diskriminazioa ere kontuan harturik, astialdian ere esparru honen inguruan hausnartzen eta egoerak planteatzen jartzea ezinbestekoa da. Honen harira, astialdian ikaskuntza asko ematen dira eta une egoki bat izaten da pertsona edo norbanakoaren giza garapenerako, horregatik, genero-estereotipoak bereizita egotea edo sexuei dagozkien baldintzak izateak eragina du beti egiten den horretan. Zentzu honetan, erantzukizuna hezitzaileen gain egongo da, lan hau burutzerako orduan lanketa modu egokian eman dadin.

Astialdiak asko du esateko nortasunaren garapenean eta norbera garatzeko ezaugarrietan, izan ere, adin hauetan jokabideak eta ikuspegiak zehazten eta finkatzen hasten dira norbanakoaren baitan. Zentzu honetan gaitasunak garatzen hasteko bidea ere presente egoten da astialdiko ekintza eta honi dagozkion prozesuetan.

Beraz, beste eremu askotan bezala, astialdian lantzen den guztia genero-ikuspegitik birplanteatu behar da nahitaez. Berdintsuak ez diren jarrerak, genero rola edo estereotipoak bertan behera gera daitezten. Berdintasuna ez den jarrera oro, genero rola edo estereotipoak bertan behera gera daitezten lortzeko lan egiten da. Horretarako, lan egiterako orduan, fokua jokabide eta jarreretan ere jarri behar da.

Hori lortzeko helburuarekin ezinbestekoa izango diren kanpo-faktore asko daude betiere, zenbait kasutan lagungarriak izango direnak eta beste zenbaitetan ez. Hauek dira horietako batzuk: familia, ikastetxea, komunikabideak, kalea oro har...

Astialdian ere, hainbat gai hartu behar dira kontuan hezkidetzak garatzeko anean:

- Denbora eta espazioa nola banatzen den.
- Haur eta gazteei nolako ereduak aurkezten zaizkien.
- Nolakoa den komunikazioa haiekin.
- Egiten zaizkien balorazio eta iritzi trukaketak nola ematen diren.

Hauei guztiei jarraitzen dien abar luze batez jabetzeak berebiziko pisua hartzen du eta, aurretik

esan bezala, eragina izango du eta ondorioak izan ditzake etorkizunean. Izan ere, gazteek inguruan duten ekosistema osoaren bidez eta honetan burutzen diren ekintzen elkarreraginez ikasten dute. Zentzu honetan, aipatu behar da haur edo gazteek sarritan ereduaren bidez barneratzen dituztela gauzak eta autoritateak kasu honetan pisu handia hartzen duela. Hala, errespetutik, tolerantziatik eta elkar ulertzetik komunikatzea garrantzitsua izango da astialdian ere.

Beraz, inguruarekin zerikusia duten gai guztiak aintzat hartu eta egokitu behar dira hezkidetzaren eman dadin eta oinarritzko hainbat gaitasunen garapena sustatu dadin. Betiere balio jakin batzuen arabera sustaturik eta barneratutako hauen ondorioz praktika koherenteak irakatsiz, oinarritzko jokabideetan eraginez.

Hau guztia emateko, astialdian ere haur edo gazteen esparru oro ukitu behar du hezkidetzak, nahitaezkoa baita generoaren baitako analisian paradigma globalizatzaile gisa ulertzea eta estereotipoak gaindituz ematea.

Hau komunitateko eragile desberdinen eraginez eramango da aurrera, elkarlanean oinarritutako diseinu baten baitan.

Astialdian, hezkidetzaren prozesuak garatuz gero, ezinbestean eremu hauetan eragin beharko du:

- Astialdi ereduaren definitzerakoan eta hau aurrera eramateko diseinatzen den planean.
- Ikasleen behar, gaitasun, balio eta praktikak baloratzekoan.
- Zehar-gai bakoitzean (kontakizunak, albisteak...).
- Espazioen antolamenduan.
- Bizikidetzaren arauetan.
- Materialak aukeratzeko orduan eta hauek aukeratzeko irizpideetan.
- Egiten den jardueraren bakoitzaren ezaugarrietan.
- Hezitzaileen eta gazte edo haurren elkarreragin, harreman eta komunikazioan.
- Ebaluazio irizpideetan.

4. METODOLOGIA

Lan hau aurrera eramateko, aurreko txosteneko egitura errepikatuz (*Berdinezi, 2018*), alde batetik galdetegi bat garatu da, honen xedea astialdi taldeetako hezitzaileen gai honen inguruko iritziak jasotzea izan delarik. Bestetik, lan-saio ezberdinak egin dira EGK-ko astialdi espazioekin eta baita EGKren baitan ez egon arren, beste modu batera antolatuta dauden astialdi talde eta eragile desberdinekin. Hauetan, solasaldi bitartez une honetan hezkidetzaren gainean nola jarduten den eta zein ezagutza dauden elkarbanatu da, baita hezkidetzaren lantzerako orduan aurrera begirako zalantza eta erronkak komentatu ere. Bi bide desberdin hauetatik ateratako emaitza da jarraian aurkezten dena, non datu kualitatibo zein kuantitatiboak elkar elikatzen diren egoeraren eta ikuspegi azterketa egiteko.

4.1. GALDETEGIA

2020ko otsailean, astialdi eremuetan hezkidetzaren nola ematen den jakiteko galdetegi bat zabaldu zen. Honen eskema honakoa izan zen: Hezkidetzari buruz dauden ezagutzak (zer den, nola definituko litzatekeen...), norbere abiapuntutik eta bizipenetik errealitatea nola ikusten den (ea errealitatea emakume/gizon edota femenino/maskulino dikotomian oinarrituta dagoen, ea materialetan emakumeen errepresentazioak ageri diren...),

astialdi taldeetan ematen den hezkidetzaren nolakoa den (ea ematen den, ea bermatzen duten espazioa genero-perspektibatik aztertua dagoen...) eta etorkizunerako tresnak zein erronkak zeintzuk izan behar diren, beharretatik abiatuz.

Galdetegi hau modu telematikoan osatzeko aukera egon zen eta 40 erantzun jaso ziren. Pertsona hauen profila astialdi talde desberdinetako begiraleena izan da, hain zuzen ere haur eta gazteekin zuzeneko esku-hartzea egiten dutenak. Lurralde desberdinetan lanean dauden begirale eta hezitzaileek izan dute aukera lanketa honetan parte hartzeko, EAEn hain zuzen ere. Beraz, bilduta datorren informazioak bai Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban ematen den errealitateari egingo dio erreferentzia, tresna honekin gai hau errealitate oso desberdinetatik baina abiapuntu berdinetatik nola bizi den aztertu nahi da, aurrera begira ikuspegi integral batetik gaia landu eta beharrei erantzuteko asmoz.

4.2. LAN SAIOAK

Galdetegiaz gain, eta elkarte bakoitzaren errealitatea modu sakonago batean ezagutzeko, sei lan-saio egin dira. Lanketa hau EGK barruan edo elkarlanean aritzen diren astialdi taldeekin egin da: Euskarabentura, Itaka Eskolapios, Gipuzkoako

Gaztetxoak, Geu elkarte, Arabako Eskaut Laikoak eta Goian elkarte.


Saio horiek elkarten eremu naturalean egin dira, egoera bakoitzera egokituz. Abiapuntu desberdinetatik gai berdinak aztertu dira eta beti eskaini da solasaldirako aukera. Galderak ez dira mugatuak izan, beraz malgutasunez eta errealitate bakoitzera egokituta egin da informazioa jasotzeko bidea •



5. ANALISIA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA

Astaldi taldeetan hezkidetzak nola ematen den aztertu baino lehen, hezkidetzak bera nola definitzen duten jakin nahi izan da. Horretarako hasteko, galdetegian hezkidetzak zer den galdetu da. Emaitzen arabera, hezitzaile taldeetako %92,5ak badaki zer den hezkidetzak. Ondorengo grafikoan ikus daitezke emaitzak.

GRAFIKOA 1. BA AL DAKIZU HEZKIDETZAK ZER DEN?



Iturria: EGK-k eginiko galdetegia

Honi jarraiki, galdetegian jasotutako definizioak hainbat definizio¹ bildu nahi izan dira:

“Genero-rolatan eta gizon eta emakumeen arteko harremanetan eragiten duen hezkuntza, gure harremanak eta erakundeak menderatzen dituzten klaxeei buruz kontzientziatzeko eta horiek zuzentzen saiatzeko. Emozionalki berdinzaleagoak, bidezkoagoak, solidarioagoak, errespetuzkoagoak, kontzienteeagoak eta osasuntsuagoak izan gaitzen”.

“Hezkidetzak, genero rola apurtzea eta hortik at dagoen identitate eraikuntza aske bati bide ematea du helburu”.

“Generoari dagozkion bereizketarik egin gabe heztea, sozialki jasotutako generoari buruzko jarrera eta portaerak deseraikiz”.

Lan-saioetan hezkidetzak definitzea zaila dela adierazi da, hala ere, denak ziren jakitun hezkidetzak zer den. Aipatu zuten, ordea, modu kontzientean duela gutxi jarri diotela izen hori, eta lan hori aurretik ere ahaleginez burutzen zen arren, agerian gelditu da ez zela kontzeptuarekin modu zuzenean lotzen.

¹ Txostenean bildutako definizioak euskaraz eta gaztelaniaz egin dira eta ondoren itzuli, beraz, guztiak ez dira jatorrizkoak.


Lan saioetan aipatu da berdintasuna balio oso garrantzitsua izan dela astialdi taldeetan betidanik eta, hori dela-eta, honi buruzko lanketa egin izan dela modu batera edo bestera. Hala ere, aurretik esan bezala inoiz ez 'hezkidetza' hitzaren pean edo definizio horri helduz. Hortik abiatuz komentatu da orain gutxi hasi direla termino honekin harremantzen eta hau beraiena egiten, naturalago sentitzen. Bereziki taldeetariko batzuek izan dituzten ikastaro ezberdinetan. Zentzu honetan, uste dute, hezkidetza hezkuntza arloko jendeari ezagunago egiten zaiola beste arloetako jende bati baino.

“Nire ustez, zauden esparruaren arabera, errazagoa da hezkidetza deritzon zerbait dagoela ikustea. Hezkidetzarekin zerikusirik ez duen norbaiti galdetzen badiozu ere, erantzuna hau da: zer da hori? Eta nire ustez, hezkuntza-giroetan orain behintzat hitza entzuten ari garela, edo hezkidetza-lana egiten dugula pentsatzen hasi gara. Orain dela hamar urte begirale sartu nintzenez, hau ez zen planteatu ere egiten, ez zen gure buruetan sartzen. Eta orain hobetu dezakegula pentsatzeko ariketa egiten ari gara, eta uste dut entzuten ari dela “.

Hala ere, lan saioetan bildu denagatik, rolen banaketan, jarreretan, sentsibilizazioan eta aukeretan adi egotea izango litzateke hezkidetza astialdian lantzea.

Hezkidetza zer den definitzeaz gain, garrantzitsua da hezkidetza astialdian ematen den edo ez jakitea, izan kontzienteki edo inkontzienteki. Horretarako, hezkidetza ematen den edo ez aztertzeke, galdetegi eta lan saioetan hausnartutako puntua izan da. Horretarako, egoera zehatzetan oinarritu izan da, kasuan kasu erantzuna lortzeko. Analisi kuantitatiboari eta galdetegiaren emaitzei dagokienez, ondorengo grafikoan ikus daitekeenaren arabera hezkidetza modu aktiboan ematen da astialdiko elkarte eta taldeetan desberdinetan.

GRAFIKOA 2. ZUEN ASTIALDI ELKARTEAN LANTZEN AL DA HEZKIDETZA?



Iturria: EGK-k egindako galdetegia

Galdetegia bete duten pertsonen arabera, ondorengo multzoetan banatu dira euren hezkidetzak lantzeko moduak:

- Modu transbertsalean lantzen dituzten gaietan genero-perspektiba sartuz.
- Haur eta gazteen arteko desberdintasunak identifikatu eta denen arteko berdintasuna bermatuz.
- Data esanguratsuak aipatuz.
- Ekimen ezberdinak antolatuz: hitzaldiak, ekintzak, jolasak...
- Hezitzaileak formatuz eta ikastaroak antolatuz.

Galdetegian ateratako puntuetan bezala, lan saioetan ere, hezkidetzak lantzeko antzerako modu desberdinak aipatu dituzte. Hala ere, astialdi talde ezberdinekin egin ziren bilerak eta bakoitzak aurrera eramaten zuen hezkidetzak eredu guztiz ezberdina izan da. Honekin ikusi zen astialdi taldeetan hezkidetzako dinamikak ematen direla, modu batean edo bestean. Zentzu honetan, ikusi zen oraindik ere ez dagoela marko bat zehaztuta non guztiek garatzen eta arautzen duten bideorri bat era berdinean gai hau lantzeko. Ondoren, bildutako hainbat lanketa zerrendatuko dira:

- **Planifikazioa abiapuntu gisa.** Lan saioetan ateratako iritzietan ikusi da lanketa diseinuan hasteari garrantzia berezia eman behar zaiola:

“Diseinuan hasten da guztia, garatzen joango dena ekintzen diseinuan joan behar da. Garrantzitsuena oinarritzkoenetik lanketa hastea da, abiapuntu komuna argi izatea eta oinarritzkoena kontuan hartzea, lantzeko gai asko baitaude hezkidetzan. Mailakatze ariketa hori hezitzaile guztiek argi izatea oso beharrezkoa da: zer eman behar den ezinbestean eta zer une edo egoeraren arabera. Denborak neurtu eta hezitzaileok proiektua egiten gauden unetik edo esku-hartzea diseinatzen gauden unetik

ikuspegi hori izatea beharrezkoa da, kontu desberdinak zaintzearena beti presente izanik. Lehenik eta behin diseinuan zer zaindu eta landu behar den analizatu behar da, hau oinarria izango baita eta gero arreta jarri egunerokoan, beste gauza espezifiko edo praktikoagoak lantzeko”.

- **Feminismoari buruzko saio edo tailerrak.**

Astialdi taldeetan tailer eta ikastaroak egitearen beharra identifikatu da. Hauetan, hezkidetzaz lantzen dute modu batean zein bestean. Esaterako, sexualitateari buruzko tailerrak ematen dira non emakumearen sexualitateari buruzko aurreiritziekin haustea kontuan izaten den. Bestalde, ikusi da ere, euskararekin lotura duten astialdi espazioetan hizkuntzaren erabilerari buruzko ikastaroak egin direla, hizkuntzaren erabilera ez sexista lantzeko. Eta horiez gain, honakoak dira egin dituzten tailerrak: maskulinitateari buruzkoak, LGTBI+ kolektiboari buruzkoak...

- **Egun espezifikoaren lanketa.** Lan saioetan ikusi da data esanguratsuen testuinguruak bultzatuta, aukera asko daudela egutegiak markatzen dituen daten bueltan gai horren inguruko ekintzak antolatu eta lanketak egiteko: martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko

Eguna, maiatzak 17 LGTBI+ fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, azaroak 25 Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Eguna...

“Gainera, garrantzitsua da egunari buruzko aurrelanketa bat egitea. Eguna iritsi aurretik, hau zergatik ospatzen den eta egun berezi hau azpimarratzearen garrantzia ondo azaldu behar da. Soilik horrela lortuko da data esanguratsu hori ondo azaleratuta gelditzea taldeko kideen artean..”

- **Taldearen ezaugarriei lotutako lanketa.** Talde batek lan saioan komentatu zuenez, behin taldea ezagututa hartzen da hezkidetzarekin lotutako esku-hartze motaren erabakia, zer landu behar den edo zein behar dauden ikusita. Beraz, gaia nola landu egoerari berari eta beharrei moldatuko da, horrela beharrezko tresnak taldearen ezaugarrien arabera zehaztuz:

“Hainbat faktore hartu behar dira kontuan haiekin kontaktuan zauden lehen unetik: neska eta mutilen arteko presentzia oreka nolakoa den, mikromatxismoak ematen diren (eta hauen identifikazioa), espazio desberdinak nola okupatzen diren, zenbat entzuten diren batzuen eta beste batzuen ahotsak...

Adibidez, sukaldaritzako tailerra egiten dugu eta hemen misto izate hori nola ematen den analizatzea ezinbestekoa da gero rolen inguruan lanketa egiteko. Nondik abiatzen garen jakin behar da”.

- **Lehentasunak zehaztu.** Lan-saioetan esandakoaren arabera, talde batzuetan garrantzitsutzat hartu da talde dinamika kontuan izanik lehentasunak zehaztearen ideia. Tailerrak abiarazterakoan, aurretik egiten da diagnosi ariketa (beharren identifikazioa, aurreko atalean azaldu bezala) eta ostean, lehentasunak zehaztu zein mailakatu, lehendabizi nondik jo argi izateko.

Talde batek azaldutakoaren arabera, taldeko egoera behin ezagutu eta analizatuta pentsatzen da zer egin espezifikoki “hau egin behar dugu lehenengo”. Adierazi dutenaren arabera gainera, astialdi taldeetako lan eta ekintzen erritmoak direla medio, zaila izaten da guztiari eustea eta gai desberdinak lantzeko ezinbestean mugatu behar dira hasieratik espektatibak, behintzat lehenesten den behar horri bide ematea eraginkorra eta ondo landua izan dadin. Zehaztutakoaren arabera, aukeratu den lehentasun hori familiekin partekatzea ere ezinbestekoa izango da.

- **Erreferenteak sortu.** Jaso den analisisan esan da astialdi taldeetan saiatzen direla iruditegi ezberdinak bermatzen.

“Nik uste dut pendiente egoten garela horretaz, haiei ematen diezun eredu eta irudia delako hilabete batean 31 egunez. Aurten adibidez gidari moduan bi emakume egon dira. Eta nik uste dut txorakeria bat dela eta oso barneratuta daukaguna dela baina batzuk bai galdetzen zuten, Jo, bi gidari dira! eta behintzat ‘tik’ hori hor dago”.

- **Ahalduntze tailerrak aurrera eramatea.** Egondako elkarte batek esaterako dantzan oinarritutako ahalduntze tailer bat antolatzen du. Honen bidez genero rolak hautsi nahi dira guztien egoerak kontuan hartuta baina, batez ere, nesken ahalduntzera begira eta mutilek hain markatuta dituzten genero botere rolak deseraikitze aldera.

- **Egiten diren ekitaldietan arreta jartzea.** Talde batzuek esandakoaren arabera, arreta jartzen dute egiten diren ekitaldietan. Adibidez, antolatzen diren kontzertuak parekatuak izatea, irakurle klubean emakume idazleak izatea...

- **Ebaluazioak ere prozesuaren parte izatea.** Lan saioak aurrera eramandakoan, ebaluazioaren garrantzia azpimarratu izan da. Besteak beste, ebaluazioak aurrera begirako ibilbidean norabidea markatzen laguntzen duela eta hurrengo urratsen oinarria dela adierazi dute. Baita ere, egindako ekintzan akatsak eta beharrak identifikatzeak, lanketarako balioa hartzen dute.

“Ebaluazio irizpide bat dugu eta fitxa baten bitartez hiru hilabetero zer hobetu behar den betetzen goaz: non dauden gabeziarik handienak identifikatu eta hauei datorren hiru-hilabetekoan eusteko”.

- **Formakuntzak egitea.** Bildutako talde batzuetan hezkidetzaren formazio ezberdinen bidez lantzen dute.

“Formazio espezifiko bat egiten dugu urte horretan landu nahi denarekin. Esaterako adin batzuetako ikasleekin hezkidetzaren lantzen badugu, ba formakuntza zehatz hori begirale edo hezitzaile horiek jasotzea oso beharrezkoa dela ikusten dugu. Izan ere, batzuetan uste dugu guztiari buruz dakigula eta errealitatean gero, praktikan ez da egia”.

- **Gai guztiak aniztasunetik lantzearen ikuspegia presente izatea.** Landutako edukietan, astialdi taldeetako askok mahai gainean jarri dute esaterako sexuaren edo gorputzen gaia lantzen dutela, hau ikasketa prozesuaren baitan normalizatzeko asmoz. Honekin, gainera, lanketa horiek aniztasunaren ikuspegitik egiteko beharra azpimarratu da eta aukeren berdintasuna kontuan hartzea sustatzearen garrantzia ere. Jokabide inklusiboak ahalbidetu behar dira.

“Gorputzen aniztasuna lantzen dugu gai espezifiko gisa, esaterako. Zentzu horretan aniztasunaren ideia bere osotasunean hartzen dugu, aniztasun funtzionala duten pertsonen gorputzak ere landuz adibidez. Estereotipoekin hausteko ezinbestekotzat hartzen dugu zeharkai ere beste gai batzuk txertatzea berdintasunaren ideian sakontzeko, adibidez: arrazakeria, aniztasun funtzionala... genero berdintasunaz gain”.

Egindako lan-saioa, talde edo elkarte ia guztietako kideek adierazi dute, oinarri edo orube komun baten falta izugarria sumatzen dutela eta baita tresnak guztiak eskura izateko beharra ere, espezifiko astialdi mundura bideratuta daudenak. Zentzu honetan, hezitzaile taldearen


esku geratzen da zer, noiz eta nola landu. Espezifikoki ez dago irizpiderik ezarrita eta horrek zaila egiten du hezkidetzaz zein mailatan ematen den neurtzea.

5.2. EGUNEROKO LANEAN ETA BIZIPENETAN ARRETA JARRIZ

Behin hezkidetzari buruzko informazio orokorra landu eta jaso ondoren, hezkidetzaz astialdi eremuetan nola ematen den ikusi nahi izan da. Horretarako, hasteko, errealitatea bera eta egunerokoa ea neska/mutil edo femenino/maskulino dikotomian oinarritzen den galdetu da.

Honekin batera, ondorengo grafikoan galdetegiko emaitzak aurkezten dira, non galdera honi erantzun zaion.

GRAFIKOA 3. USTE DUZU ASTIALDIA NESKA/MUTIL EDO FEMENINO/MASKULINO DIKOTOMIETAN OINARRITUTA DAGOELA?



Iturria: EGK-k egindako galdetegia.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, galdetegia erantzun dutenen %70ak ez du uste astialdia berez diseinatuta dagoen bezala neska/mutil edo femenino/maskulino dikotomietan oinarritu dagoenik. Iritzia eman duten pertsonen arabera, astialdia ez dago dikotomia baten oinarrituta, baina gizartean dikotomia dagoen heinean ezarrirako genero rolen erreproduktzioak ematen direla uste dute.

“Nahiz eta aisialdi taldeak haur eta gazte guztiak ekintza berdinak egitera bideratzen dituen, jolas librearen unean dikotomia hori nabarmentzen da. Hau da, nahiz

eta taldeak zuzenki ez duen genero rol banaketa erreproduzitzen, ez du kontzienteki hezkidetzaren pedagogia bideratzen”.

Zentzu honetan, galdetegia erantzun dutenenen %97’ak uste du hezitzaileen jarduna ezinbestekoa dela hezkidetzaren taldeetan emateko eta hau modu egokian aurrera eramango dela bermatzeko. Gainera, gehiengoak uste du hezitzaileen jarduna ezinbestekoa dela, azken finean, beraiek direlako haur edo gazte horien erreferente nagusiak. Kasu honetan, erreferentzia sortzeaz asko hitz egin da.

Hezten dugunok ereduak gara gure neska-mutilentzat. Erabakiak hartzeko eta jokatzeko moduak eragina du gure heziketan. Aurrera eramatea erabaki ditugun aspektuez (helburuak eta jarduerak) gain “.

“Haur eta gazteek, kalean, etxean, hezkuntza formalean, hezkuntza ez formalean... txikitatik genero rol finkatu batzuetan kokatu behar izan dute beren identitatea, eta adinean gora joan ala norberaren identitatearen eraikuntza egonkortuz doa. Horregatik, monitoreok horren hausturan parte hartu ezean, haur horiek identitate hori sendotzen jarraituko dute eta gero eta zailagoa izango da hori deseraikitzea.

Horregatik, hezkidetzan, monitoreok paper garrantzitsu bat dugula iruditzen zait”.

Lan-saioetan ere, ildo honetan joan dira hausnarketak.

“Guk, begirale garen aldetik, geure gain hartzen ditugu zenbait rol, gizartean gertatzen den bezala. Erreferente neutroagoak sortu behar direla uste dut. Futbolari begiralea emakumea izatea edo dirua daraman pertsona, emakumea ere izatea “.

“Etengabe adi egon behar gara zentzu honetan, baita begirale bezala gu nola komunikatzen garen horretan ere. Haiekiko modu batean edo bestean zuzentzeak determinazio handia hartzen du nola ikusten zaituzten horretan.”

“Hemen berriro ere rolak sartzen dira. Neska bati goxo eta “printzesa” bezalako hitzekin zuzentzen bagara, inguruak eraikuntza hori pertzibitu eta erreproduzitzeko du, beraz, abiapuntua begiraleengan jarri beharko genuke sarritan eta gure lana egiterako orduan adi egon ea zein puntutaraino gauden ongi jokatzeko”.

“Bai. Askotan rolak aldatzen saiatzen gara eta gehien txokatzen duen hori jartzen dugu haiengan inpaktua sortu eta aldaketa horrekin galderak egiteko hien buruei. Betiere gu ahal dugun neurrian erantzunak emateko prestutasunarekin agertzen bagara, noski!”.

“Kontzienteki sarritan izaerekin lotutako banaketak egiten ditugu elkarreraginean dikotomia hori hainbeste eman ez dadin: isilena non eta norekin jarri esaterako ondo pentsatzen dugu, botere harremanak ere ekintzetan ez garatu eta erreproduzitzeko. Talde giroak, hemen garrantzia izugarria hartzen du”.

“Adinaren arabera ere dikotomia hau desberdindu daiteke. Gero eta nagusiagoen artean gailenduz doa eta esango genuke nabarmen handitzen dela desberdintasuna eta batzuen eta besteen arteko botere distantzia. Hori aldatzen saiatzen gara, baina arazoa badago eta begiraleen jarrera (konturatzetik edo ez konturatzetik hasita) zaintzea eta honetan arreta jartzea ezinbestekoa da”.

Haur eta gazteekiko eredu izatean norberak ikasiak dituen eta, hortaz, erreproduzitzen dituen

rolak zeintzuk diren kontuan izatea ezinbestekoa da. Hori dela-eta, lan saioetan hezitzaileen arteko botere harremanei buruz galdetu zaie. Alde batetik, ardura ezberdinetako hezitzaileak beraien artean dituzten botere harremanei buruz hitz egin da, eta bestetik, emakume eta gizonen artean ematen diren botere harremanei buruz orokorrean: izan beraien artean (hezitzaileak) edota haur eta gazteen artean. Hala, egoera anitzetan eta ekintza desberdinak aurrera eramaterako orduan desberdintasun bat dagoen identifikatu nahi izan da.

Gehiengoaren arabera, hezitzaileek sortutako botere harreman nabarmenik ez dagoela adierazi dute, izan ere, askotan lanketak haur eta gazteekin finkatzen dituztela aipatu da. Modu horizontalean hartutako rolak bereganatzen dituztela nabarmendu dute gehienek. Hala ere, batzuk bai identifikatu dituzten ezberdintasun batzuk, izan ahotsaren tonuan edo espazioa hartzerako orduan postuaretan, adibidez.

Aldi berean, botere harreman horri buruzko hausnarketak ez direla ematen adierazi dute, batez ere horiek lantzeko tresnak falta zaizkielako:

“Nik uste dut badirela espazio batzuk pentsatzen duzuna partekatzeko: zer moduz

ikusten diren taldeak, nola sentitzen zaren... baina uste dut ez dela hainbeste lotzen orain hitz egiten ari garen honekin. Ados, ondo nago begirale honekin, baina ez dugu hitz egiten zer rol hartzen ditugun eta zergatik. Eta uste dut interesgarria litzatekeela horretaz hitz egitea”.

Izandako lan saio ezberdinetan ikusi da hezitzaileek ez diotela espresuki ematen tartea egiten duten jarduna genero-perspektibatik aztertzeari eta, beraz, behar besteko denborarekin gai hau ez dela hartzen adierazi da. Zentzu honetan gutxitan biltzen dira haur edo gazteek nola parte-hartu duten aztertzeo eta horri dagokion neurriak hartzeo.

Hala, aipatu da, “zerbait gertatu denean” soilik ematen diotela tartea hezkidetza lantzeari: erasoren bat eman bada esaterako. Baina beste kasu batzuk (horren espezifikoa ez direnak) sarritan uneko erantzunarekin lantzen direla, modu espontaneoan. Honekin, ikusi da orokortua dela “uneko egoeraren arabera erantzun dinamika” bat talde gehienetan. Hau da, egoera hauetan ez dela ematen egoeren aurreikuspenik eta erantzun prestatu edo atzean lanketa oso bat dutenekin. Hala, kasu batzuk kenduta, ez dituzte zehaztuta egoera hauen gaineko neurri,

ibilbide ezta ondorioak (erasoen protokoloa kenduta) adibidez. Hauei aurre egiteko esku-hartze adibideen, praktika onen edo orokorrean tresnen falta eta beharra dutela azpimarratu da sarritan hausnarketan zehar.

Ikusi da, aldi berean, hainbat astialdi taldek, baina ez denek, eraso matxisten aurkako protokoloa dutela. Hala, udalekuen hasieran protokolo hau zertan datzan azaltzen dute eta inongo eraso bat emango balitz pertsona erreferente bat jartzen dute zerbait gertatzekotan informazioa helarazteko.

5.3. ESPAZIOAK: banaketa eta erabilera

Hezkidetza lantzean puntu garrantzitsu bat bilakatu da espazioaren erabilera aztertzea. Hala, lan saioetako parte-hartzaileen gehiengoak neskek eta mutilek espazioa ezberdin erabiltzen dutela ikusi dute. Izan ere, ikusten dute espazioaren erdialdea mutilek erabiltzen dutela batez ere, neskek izkinetan kokatzen direlarik:

“Batuetan hiru mutil bakarrik ikusten dituzu jolasten eta zera diozu “eta besteak non daude?”. Batuetan logeletan egoten dira.... Batuetan dira neskek, baina ez bakarrik. Gehiago dira, baina mutilak ere egoten dira.

Gu ere saiatzen gara jendea logeletatik ateratzen”.

Banaketa hori ordu libreetan ikus daitekeela nabarmendu dute gehienek. Izan ere, talde askok ez dute espazio finkorik eta toki ezberdinetara joan behar izaten dira ekintza egitera.

Espazioaren erabileraren azterketa kirolezko espazioen ikuspegitik egin da batez ere. Egin den hausnarketa nagusia horretan oinarrituta egin baita. Saio hauetan ateratako ondorio nagusia da, modu inkontzientean bada ere, haur eta gazteei ematen zaien astialdian honakoa dela: Gizonezkoek okupatzen dute espazioaren zentralitatea, batez ere, futbol eta saskibaloian dabiltzalarik.

Nik argi daukat kanpamentuetan egoten garen hiru baserrietan huts gehien espazioaren kudeaketan egiten dugula. Egon daitezkeen leku guztietatik, normalean futbol-zelaian egoten dira mutil gehienak, gainbegiratu gabe duten denbora librean. Eta neskek, ez denak, baina bai gehienak, periferian egoten dira bestelako jarduerak egiten. Nire ustez, futbolarekin ere arazo bat dago, eta, horren ondorioz, espazioa gehienbat mutilek erabiltzen dute eta neskek gutxiago “.

Udalekuak antolatzen dituzten taldeek bestalde, adierazi dute Foru Aldundiaren araua dela-eta, logelak neska eta mutilen arteko bereizketarekin egiten dituztela. Hala ere, mekanismoak jartzen dituztela euren arteko harremana bermatzeko. Zentzu honetan, komunak ere bereizi egiten direla aipatu da.

5.4. MATERIALA

Galdetegia bete dutenen gehiengoak (% 82,5) uste du erabiltzen duten material didaktikoetan emakumeek eginiko ekarpenak agertzen direla.

“Genero rol eta estereotipoak etengabe erreproduzitzen dira nahitaez astialdian erabiltzen den materialean ere, zuk ez baduzu egokituta dagoen material bat espresuki bilatzen, rolak etengabe erreproduzitzen direla ikusiko duzu eta beraz hori kontatzen, transmititzen eta horretan hezten ari tuko zara, zuk moldatu edo aldatzeko lana hartu ezean. Gai hau aniztasun kulturalaren ikuspegitik ere landu daiteke gainera. Orokorrean beti ikusiko ditugu inguruan mutil zuriak baloi batekin eta neska zuriak sukaldatzera jolasten, beraz oso markatuta dago. Gu, jolas desberdinetan ahalik eta gehien eta zentzu hauetan guztietan egokitzen saiatzen gara

(estereotipoak aldatzen: neska futbolean, mutila dantzan) baina azkenean hori bilatu egin behar da eta bestela ez duzu aurkituko denbora eskaintzen ez badiozu”.

Orokorrean materialetan erreferentien lanketa egin beharra ikusi da, esaterako ondorengo euskarrien edo baliabideen kasuan:

- Ipuinak
- Kontakizunak
- Bideoak/Pelikulak
- Musika abestiak edo emanaldiak



6. ETORKIZUNERAKOKO PROPOSAMENAK

Ondorengo atalean hezkidetzaz lortzeko bidean eman daitezkeen urratsak eta proposamenak zehazten dira, galdetegietatik eta lan-saioetatik jasotakoak.

6.1. ASTIALDI TALDE ETA ELKARTEEI ZUZENDUTA

Honen baitan martxan jarri daitezkeen faktoreak definitu eta hauetan sakondu aurretik, beharrezkoa da honakoa kontuan izatea: beharrezkoak diren elementuen hausnarketa taldearen ezaugarri, dinamika edota une zein denboren arabera izango da. Hau da, ezin da modu zurrin batean definitu zer den talde bakoitzak behar duena edo egin behar duena, izan ere, taldearen berezitasuna eta orain aipatutako faktoreak aintzat hartzea ezinbestekoa izango da zer egin nahi den eta hau taldean nola egingo den zehaztu aurretik.

Hau, gainera, zuzenean loturik doa ezinbestean egin behar den elementuen identifikazioarekin. Hau lehenengo urrats gisa gauzatu da eta ekintzak egikaritu daitezkeen edo ez hausnartu aurretik zein ekintza lehenesten den pentsatzea izango da lehen urratsa. Hau da, lehentasunak markatzeko talde ariketa bat burutu beharko da eta zehazten diren kontuak ordenatuko dira jarraian. Ondoren datozen

hauek guztiak, unean uneko faktoreen arabera izango dira, taldeak dituen testuingurua kontuan harturik.

Egunerokoan garrantzitsuak izango diren praktikak sortzea eta erabiltzea:

• Formakuntza:

Jasotako informazioaren arabera, astialdi taldeetako jendeari formakuntza gehiago izatea gustatuko litzaioke. Alde batetik, hezitzaileei; eta, bestetik, haur eta nerabeei zuzendurikoa.

Hezitzaileei zuzenduriko formazioa behar dela uste dute euren jarduna egiten dutenean genero-perspektiba une oro eta modu zeharkakoan kontuan izateko. Hala, generoaren erakuntza soziala nola ematen den eta honek haur eta nerabeetan nola eragin duen jakitea, ekintzak garatzen dituztenean berdintasuna nola txertatu kontuan izatea, haur eta nerabeei berdintasunez zuzentzeko irizpideak barneratzea... bezalako gaietan formatzea ezinbestekoa ikusten dute.

Bestalde, uste dute garrantzitsua dela baita ere haur eta nerabeei zuzenduriko formazioak implementatzea. Hau da, beste gai batzuekin

formakuntzak edo tailerrak ematen diren bezala, feminismoaren gaiak jorratzeko espazioak sortzea: sexualitatea lantzea, maskulinitate eredu berriak jorratzea, ahalduntze feminista lantzeko espazioak sortzea...

• Hausnarketa espazioak sortzea:

Astaldian dabiltzan hezitzaileek uste dute udalekuetan eta urtean zehar egiten dituzten ekintzetan ez direla feminismoari buruzko hausnarketa espazioak sortzen hezitzaileen artean. Hau da, ekintza edota egun bakoitzaren ostean, hezitzaileak euren artean biltzen dira gertatu denari buruz hitz egin eta horien inguruko hausnarketak partekatzeko. Horietan, gutxitan lantzen da genero-perspektiba.

Hau lantzeko, lehendabizi guneen identifikazio bat egin beharko da.

Gutxitan hitz egiten dute udalekuetan ematen diren gertaerak genero-perspektiba kontuan izanda. Hau da, zein ahots gailendu den gehiago (neskarena edo mutilarena) eta zer egin hori berdintzeko; zeinek okupatu duen espazioa gehien (neskak edo mutilak) edota hezitzaileek zein jarrerarekin zuzendu zataizkien (neskei edo mutilei). Uste dute hau egitea garrantzizkoa dela,

baina ez dutela egiten. Hori dela eta, espazio hauek sortzea eta lehentasunez tratatzea beharrezko ikusten dute.

Familiekin gai eta eduki hau lantzen denean partekatze ariketa bat eskatzen du eta baita edukien sozializazio ariketa bat ere, honen baitan egindako lana beste eremu batzuetan ere aplikagarria izan dadin eta behar hori presente izateko. Honekin hasteko, interesgarria da lehendabiziko unetik prozesua familia eta gainerako hezkuntza espazio desberdinetako komunitate osoarekin lantzea, hauek informatuta egon daitezen eta prozesua hasieratik bere osotasunean uler dezaten, baita partekatu ere. Zentzu honetan, aurretik esandako hasierako diagnostikoa familiei aurkeztea (zeintzuk diren identifikatutako behar nagusiak eta zein ildotan emango den lanketa batez ere) interesgarria izan daiteke, identifikatutakoa astialdi taldetik kanpoko beste espazioetan ere ikusi den edo ez elkarrekin hausnartzeko eta beste eremu batzuetan lantzea ahalbidetzeko, taldetik kanpo ere urratsak eman daitezen bide horretan.

Honela, eta aurretik esandako guztiari jarraiki, diagnostiko partekatu bat sortu ahal izango da: taldeko hezitzaileez gain beste agenteekin

elkarlanean sortzea ahalbidetuko da modu horretan.

Identifikazio hau norekin egingo den zehaztu ondoren, interesgarria da lan-ildo berezitu edo zehatz batzuk ezartzea, egoerara egokitzen direnak prozesua modu progresiboan emateko eta honetan nondik jo diseinatzen hasteko. Hau, lan bolumenaren eta testuinguru orokorarekin koherentzia bat mantenduz diseinatuko da.

• **Identitate berriak ezagutzea eta horien gainean izan beharreko jarrera eta diskurtsoak lantzea:**

Aniztasuna eta identitateak zein bizitzak bizitzeko hamaika modu daudela kontuan hartzea guztiaren oinarria izan behar da. Pertsonen ezaugarriak berez ezartzearen ideia hautsi eta ikuskera zabaltzea ezinbestekoa izango da esku-hartze egoki bat garatzerako unean ere. Hau planifikatzeko, ezinbestekoa da hezitzaile gisa haur eta nerabeekin aukera berriei buruzko eta, beraz, nolabaiteko bizimodu eredu berrien inguruko lanketa egiteko tarteaz izatea. Existitzen diren identitate mota guztiei tokia utzi eta egin behar zaie, existitzen den errealitate oro presente egon dadin eguneroko ekintzetan ere. Aniztasunean hezteko orube gisa izanik,

ezinbestean eredu berrietara irekita egon behar da hezitzailea, kasu honetan gainera taldea eta norbanakoa ere hala egon eta sentitu dadin.

Maila praktikoan, esaterako uneko egoera eta errealitateetara egokituz astialdi ekintzetarako izen-emate orrietan neska eta mutil aukerak jartzeaz gain 'ez binomioa' hori integratzea behar bat da une honetan. Gainera, zentzu horri eutsiz eta errealitatean oinarritutako egokitzapen honek esaterako gurasoak bezalako agenteekin pedagogia egiteko aukera eskaintzen du, bizitzeko identitate berri horiek agerian utziz eta horren baitan heziz.

• **Hezkidetzaren arduradunaren figura sortzea:**

Taldearen dimentsioen edota langile zein boluntarioen funtzio eta ardurak kontuan izanik, hezkidetzaren arduradunaren figura interesgarria izan daiteke taldeak ohiko jarduna aurrera daraman bitartean behaketa eta jarraipen funtzioa bete dadin.

Kontuan izan behar da, betiere, hezkidetzaren lantzearen arduraren partekatua eta guztiena dela. Arduradunaren profila bat ezartzeak ez ditu gainerako profesional, gazte edo beste langileak lan honetatik kanpo uzten, hau lanketa indartzeko

eta honi metodikoki behar duen denbora zein ekarpena egiteko baliatuko delarik. Beraz, gehigarri bezala ikusi behar da figura hau, taldean hezkidetzaz presente izateaz arduratuko dena, lotura lanak egingo dituen eta hau indartzeko proposamenak (guztienak) aurrera eramaten direla bermatuz jarraipen bat egingo duena, esaterako ebaluazio jarraia.

Pertsona erreferente bat izateak gainera, haur eta gazteei gai honen gaineko nahi, behar edo arazoren bat izatean konfiantzazko espazio berezitu bat sortuko luke, non pertsona hori bideratzeko eta lanketa egiteko prestatua egongo den: entzuteko, dinamizatze, kontuan hartzeko eta beharrezkoak balira, neurriak taldeari azaltzeko. Erabakien eta egoeren lotura izango da figura hau. Hala ere, garrantzitsua ikusten da profil hau denboran aldakorra izatea, ardura beti pertsona baten gain egon beharrean hezitzaile guztien artean banatzea.

• **Taldearen baitako ebaluazio sistema zehaztea:**

Guztien artean adostutako taldeko jarduera bat izango da hau, zeinek aukera emango duen hezkidetzaren baitan egindako edo ez egindako lana ebaluatzeko. Eginkizun partekatua izan

behar da beti beraz, taldeak eta honen kide bakoitzak bere behar eta funtzionaltasuna ikusteko ariketa egin behar da lehendabizi.

Emandako urratsak balioan jarri eta ebaluatzeko zein eman gabekoak nola bideratu daitezkeen berriro ere mahai gainean jartzeko tartea izango da ebaluazio unea.

Prozesu jarraikor eta epe luzerako batek, etengabe ebaluatu behar ditu bere ekintzak hau hala burutzeko ardura hartzen baldin bada. Modu honetan, ondorengo puntuak zehaztu beharko dira ebaluazio sistemaren baitan eta hau osatze aldera:

- Ebaluatzeko metodologia:
Ebaluatzeko materiala (fitxak, txantiloak...) Ebaluatuak izango diren edukiak: analisirako eta hausnarketarako elementuak lehenetsi beharko dira. Kontziente izan behar da agian ezingo dela guztia ebaluatu aldi berean.
- Noiz ebaluatuko den: denboralizazioa taldearen eta talde horren ekintzen arabera izatea komeni da.
- Nola partekatuko den ebaluatutakoa (hezitzaileen artean, haur eta gazteen artean, familiarekin, beste langileekin...). Ateratako ondorio eta emaitzen inguruan ekarpenak

jaso eta hauek eztabaidatzeko guneak identifikatzea.

Honen harira komeni da argi izatea ebaluazio tresna nork eta nola erabiliko duen hasierako unetik: gazte guztiek, ordezkariak, taldeka, banaka...

6.2. ADMINISTRAZIOEI ZUZENDUTA

• Hezkidetzaren plan bat osatzea:

Astaldi taldeen errealitatetik abiatutako hezkidetzaren plan bat sortzea garrantzitsutzat jotzen da. Hezkuntza formalera zuzenduta dagoen II. Hezkidetzaren plan bat dagoen bezala, astialdian ere esparrua arautu eta hezkidetzaren bermatzeko beharrezkoak diren irizpideak osatzeko.

• Partaidetzaren espazioak sortzea:

Hezkuntzan formalean egiten den moduan, astialdi espazioetan garatzen den hezkidetzari jarraipena emateko eta hausnarketa sortzeko partaidetzaren espazioak sortzea garrantzitsua dela uste da. Astialdi talde ezberdinak bildu daitezten eta honi buruz etorkizuneko ildoak defini ditzaten.

• Material eta euskarriak sortzea:

Astaldi taldeetarako orientatzaileak eta lagungarriak izan daitezkeen material eta euskarriak izatea oso garrantzitsua ikusten da. Gaur egun gutxi dira lanketa teorikoetatik eredu praktikoetarako saltoa egiten duten materialak gai honetan. Zentzu honetan, astialdietako gazteek teorikoki eman beharreko urratsak zeintzuk izan daitezkeen badakiten arren, faltan botatzen dute egunerokoan balioko dieten liburu, joko, dinamika ...

• Praktika onak garatzeko gidak sortzea, partekatzea eta lantzea.

• Administrazioetik hezkidetzaren lantzeko astialdi taldeei diru-laguntzak ematea:

Astaldi talde askok hezkidetzaren lantzeko baliabideak behar dituzte, batez ere ekonomikoak. Izan ere, hezkidetzaren zuzenduriko edozein proiektu egiteko dirua behar dute eta honen faltan badaude, askotan beste gauza "premiazkoak" egitea lehenesten dute, hezkidetzaren bigarren mailako utzita •



7. ITXIERA

Aurretik ikusi den bezala, hezkuntzak etengabe zeharkatzen ditu gure bizitzak. Kasu honetan, hezkuntza ez formalean ere askotariko jakintzak barneratu daitezke eta beharrezkoa da, beraz, ikasketa horiek zein ikuspegitik, zer zainduz edota zer aintzat hartuz ematen direla jakitea. Fokua hezkidetzan jarri nahi izan da kasu honetan, baina balioen lanketa izango da etengabe birpentsatu beharreko hori, pertsonon heziketa balio eta hauen ondoriozko jokabideek baldintzatuko baitute etengabe, hauek izaten direlarik ikasketa prozesuaren zutabe.

Balioetan heztea hezkuntza formaletik haratago doan zerbait da, bizitzako esparru anitz ukitzen ditu: familia-egitura, astialdia, eskolaz kanpoko ekintzak, jolasak, telebista... Zentzu honetan, hezkidetzak toki berezitu, antolatu eta estrategikoa hartu dezake pertsona baten jokabidean eragiteko. Horretarako, esan denez, astialdi hezitzaileko hezkuntzan inplikaturako agente guztien konpromisoa da beharrezkoa. Ikusi denez,

beharrezkoa da pertsonon beharrak presente izanik lan egitea, lehendabizi premia hauei arreta jarritz, geroago lantzeko. Hauek hezkidetzatik jorratzeko erak askotarikoak izan daitezke, eta pertsona erdigunean dagoela talde dinamika ezinbestean hartu behar da kontuan hezkidetzan. Hau esanda, oraindik ere ibilbide handia dago honen baitan egiteko, diseinatzeko. Nagusiki atera diren kontuak planifikazio edo bideorri amankomun baten beharra dira, eta zentzu honetan lanketa baten nahiaren identifikazioa izan dira. Ematen den errealitate bat dela kontuan harturik, praktika onak martxan jartzeari bide ematea hain zuzen ere.

Txikitatik ikasten ditugun kontuek geroagoko jarrerak, harremanak, bizipenak... baldintzatuko dituzte eta hezkuntza formalean bezala, neurri eta lanketa berriek aukera emango dute honi behar duen garrantziaz heltzeko, modu kolektiboan eta parte-hartzailean. Astialdi munduko komunitate osoaren isla izanik eta guztion beharrak identifikatuz elkarrekin lan egitean, gaiari sakonago helduz •

HAZIAK ASTIALDIRA



8. BIBLIOGRAFIA

Arabako Foru Aldundia (2004). *[Generoa aisialdian](#)*.

EGK (2016). *[Sexualitatearen koloreak](#)*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia.

Eusk. EGK (2018). *[BerdinHezi: Hezkidetzarako lehen urratsak](#)*.

Emakunde (1997). *[Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida](#)*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea.

Fresnedo, Ibai eta Gabilondo, Joseba (2018). *Betaurreko moreak gida*. Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak. Donostia-San Sebastián: Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema.

Hezkuntza Saila (2019). *[EAE-ko hezkuntza sistemarako II hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratuen bidean](#)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.

Torregrosa, Itxaso eta Tato, Eloi (2020). *[Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat dokumentuan](#)*. Iruña: Graficas Xabier.

WEBGRAFIA

Naizen (2020). *<https://naizen.eus/eu/terminologia/>*

Alboan (2020). *<https://www.alboan.org/eu>*



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

www.egk.eus